

# Nekazaritza, arkitekturarako inspirazio-iturri

Unai Fernandez de Betoño °



Gako-hitzak:  
nekazaritza,  
paisaia,  
lurraldea,  
partzelazioa

## Nekazaria, agindupeko

Gizakiak nomada izateari utzi zionean hasi zen hiriaren historia, ziurrenik. Garai hartan, Neolitoan, erabaki bide zuen toki jakin batean egonkortzea, nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzeko, aurreneko hiri-finkamenduak lurraldean zehar ezarriz. Oinarrizko finkamendu horiek, antolatutako plantingintza bati jarraiki baino gehiago, sen onari kasu eginez organiko edo espontaneoki haziko ziren. Banaka, familiak edo taldeka, etxolak eraiki zituzten, baita haiei sarbidea emateko lehen espazio publiko zehaztugabeak adostu ere. Hasiera hartan, denetarik egingo zuten guztiek: lurra erein, tresnak sortu, ehiza egin... Laster konturatuko ziren, ordea, lana ondo antolatuz eta banatuz gero, baliabide ugariagoak sortzeko gai zirela. Espezializazioa agertuko zen: batzuek nekazaritza-ekoizpena handitzeko egingo zuten lan, eta, besteek, nekazari-ek sortutako soberakinei esker, artisautzan, merkataritzan eta gerran aritu ahal izango ziren; alegia, industria eta zerbitzuak lurra ereiten zutenengandik aldentzeko ziren, bi gizarte-talde sortuz: menderatzaileak (hiritarrak edo kaletarrak) eta agindu-pekoak (landatarrak edo baserritarrak) (1). Bereizketa hori are nabarmenagoa da gaur egun.

## Nekazaria, paisaia-langile

Hiritarren agindupeko nekazarien eraikuntzak, ordea, interes handikoak izan ohi dira, eta hirigintzarako inspirazio-iturri aparta osatzen dute maiz; arkitekto-rik gabeko egiazko arkitektura. Pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa antolatu ordez, uraren garraioaz arduratzen dira nekazariak; haien lursailak mugatzen dituzten hesiak ez dira hainbeste arrotzen sarrera galarazteko, baizik eta abereen ihesa ekiditeko; haientzat landa eta mendia ez dira aisialdirako paisaia erromantikoa, *Homo Aestheticus* espezieko kaletarrentzat bezala, lantokia baizik. Nekazariak lurraldearekiko duen ikuskerak, hortaz, batez ere erabilgarritasuna du helburu. Produktzioa. Alabaina, landa-erakuntza praktikoa horien berrirakurketa interesgarriak egin ditzake arkitekto garaikideak.

(1) BENEVOLO. 1981: 18

## Nekazaria, jabego-neurtzaile

Antzinako larre biribilak dira saroiak edo kortak, harrespil megalitikoaren ondorengo baliagarriak. Euskal Herriko eta inguruetako basoetan sortutako zirkulu-formako soilgune horiek abeltzaintzarako erabili izan dira orain dela gutxi arte, eta horietako asko oraindik daude ikusgai. Biribilaren barnean ola edo etxola egon ohi zen, eta, erdi-erdian, artamugarria edo hausterretza, suaren ikurra. Gutxi ikertu da haien inguruan, baina argi dago ez zirela artzainek eraikitako esparru hutsak; ez zituzten modu bakartuan egiten, baizik eta multzoka; beraz, lurraldea antolatzeko tokiko egiazko partzelazio-sistema oso baten isla ziren (2). Erromatarrak lurak kolonizatzeko 50 hektareako azalerako zenturia ortogonalaz baliatu ziren bezala, Iberiar penintsula iparraldeko nekazariak 2 eta 34 ha bitarteko biribila hautatu zuten haien jabegoa neurtzeko eta zedarritze-ko. Ba al dute hemengo lurralde-antolakuntzaren ideologoei bertako laborariek aspalditik erabilitako partzelazio-sistema honen berri?

## Nekazaria, maldaren geometrialari

Bizitzeko zein lan egiteko azalera lauak erosoagoak direla jakiteko ez da zertan arkitektura ikasi. Nekazariak aspaldi dakite malda handiko baratzeak nekezagoak direla eriteko eta uzta biltzeko. Horregatik geometrizatu izan dituzte antzinatik mendi-mazelak, oinarrizko eustorma txikien laguntzaz handiak eta hemendik zapaladak edo mailak sortuz. Nekazari-terrazak horiek herrialde ugariaren paisaia osatu dute. Mailakatzea hain estrategia ona izan da lur pikoak kolonizatzeko, ezen, nekazaritzaz harago, hiriak ere maldan ezartzeko sistema gisa maiz erabili izan den. Hainbatetan, elkarren ondoan ezarri dira eraikin mailakatuak eta nekazari-terrazak, topografia malkar-tsuarekin bat egiten duten multzo ederrak sortuz. Inken Machu Picchu, XV. mendekoa, horren adibiderik gogoangarriena izan daiteke. Horrelako multzoetan zaila da jakitea zer jardueran izan zen lehena: arkitektura ala nekazaritza?

(2) ZALDUA. 2006



1773ko saraien kokapen-planoak. Urumea ibarra. Gipuzkoa.



### Nekazaria, arkitekto

Nekazariaren etxetik ere badago zer ikasi. Izan ere, ez da soilik bizitzeko egindako eraikina; lantokia ere bada, baratzea bezalatsu. Hori dela-eta, arkitekto batek proiektatu izan ala ez, egun hain ohikoa den autore-lanaren originaltasun hutsaletik gehienetan aldentu izan den eraikuntza erabilgarria da landetxea. Euskal Herrian baserria izan da eredia, egiazko landa-lantegi trinkoa; Europako beste hainbat herrialdetan, berriz, hiri txikien modura zatika eraikitako landetxea. Eredu honetan erabilera ezberdineko pabiloien multzo praktikoa bezain hedagarria antolatzen da patio baten inguruan: alde batetik, egoitza; bestetik, ukulua, biltegia, lastategia, simaurtegia, eta abar. Austriako vierkant landetxe-ereduak, esaterako, 600 urte baino gehiago ditu, eta, batez ere nekazariak sortua izanagatik, “*teknikaren eta antolakuntzaren aldetik forma perfektuko patioa du; horrexegatik, landetxe-tipologiaren gorengo mailaren erakusgarri da*” (3). Sen ona aplikatzen duen arkitektoa da, beraz, nekazaria.

### Nekazaria, kolono

Latinezko *colōnus* terminoak nekazari esan nahi zuen. Hain zuzen ere, nekazari mota jakin bat zen kolonoa: lursail bat maizter bezala lantzen zuena. Erromatar konkistatzaileen bitarteko garrantzitsuak izan ziren kolonoak; horrexegatik, ez da harrizkoa gaur egun ia-ia sinonimo bezala erabiltzea kolono eta konkistatzaile hitzak. Kolonoen erabilera lurralde berriak konkistatzeko, ordea, ez da soilik antzinako kontu. Bi adierak ezin hobeki uztartu ziren, esaterako, XX. mendearen erdialdeko Israel estatuaren sorreran, kibbutz eta moshav izeneko nekazaritza-komuna sionistetan. Jendetsuak izan ez ziren arren, jabetza kolektiboan oinarritutako bi kolonia mota horiek erabakigarriak izan ziren judutar lurralde-antolakuntzaren ikuspuntutik, elikagai-subiranotasuna indartzeaz gain, basamortuko lur antzuak emankor bihurtu zituztelako, eta, batez ere, eremu berrien konkistarako tresna ezin eraginkorragoak izan zirelako. Gaur egun, ia erabat pribatizatu badira ere,

Israelen mugen defentsarako baliagarriak dira oraindik —700 bat kibbutz eta moshav daude—, palestinarren kalterako. Horrekin batera, palestinarren olibondoa judutarren jomuga nagusietakoa izan da lur horiek menderatzeko gerran (4). Nekazaritza, beraz, ez da ematen duen bezain neutroa.


### Nekazaria, sastrakatzearen aurkako agente

Egungo landa-paisaiak lau osagai nagusi dituela esan ohi da: *ager* edo espazio laboratua, *saltus* edo espazio landugabea, habitata edo espazio jendeztatua, eta bideak. Landa-espazioak duen garrantzi kuantitatiboa argi dago: Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, 7.233 km<sup>2</sup>-ko azalera osotik 6.607 urbanizaezin sailkatuta zeuden 2010ean (5), hots, lurraldearen % 91 baino gehiago. Hala ere, nekazaritza eta abeltzaintzarako zorua ez da ailegatzen landa-lurzoru horren % 30era, eta badirudi joera, gainerako Europan bezala, beheranzkoa dela. Izan ere, lurralde-antolakuntzari dagozkion erabakiak gehiago menderatzaileak hartzen ditu, alegia, hirietan bizi diren kalekumeek. Eta hiritarrentzat landa zera da: edo guztiz babestu beharreko eta asteburuetan gozatzeko aisialdi-paisaia; edo azkar-azkar zeharkatu beharreko zerbait, non hiritik gertu nahi ez diren azpiegitura guztiak barreiatu daitezkeen; edo nahi beste urbanizatu daitezkeen lurzoru oraindik eraikigabea, hain zuzen ere, Alderdi Popularrak sustatutako 1998ko Espainiako Lurzoruarren Lege indargabetuak ulertarazi bezala.

Nekazariak eta abeltzainek lantzen duten paisaiak ez du nahitaez kalitate handiagoa eduki behar; hortxe dago, kasurako, transgenikoen monolaborantza intentsibo suntsitzailea. Hala ere, argi izan behar dugu gaur egun ezagutzen dugun gertuko paisaia —Europako ingurune erabat antropizatua—, haiek mantentzen dutela hein handi batean. Haiek gabe lurraldea sasiz eta sastrakaz beteko litzateke, suteak gertatzeko arriskua dezente handituz, bai eta biodibertsitatea gutxituz ere (6). Nekazaria, hortaz, arkitekturarako inspirazio-iturri izateaz gain, sastrakatzearen aurkako agentea ere bada. Zaindu dezagun.

(3) SPALT, J. In BLASER, 1999: 18  
(4) KARKAR, 2007

(5) Eustat: <http://itiki.com/29658/ikontsulta-data:2011/6/19/>  
(6) SÁEZ, 2006: 3



2 Planche G. Page 438.

Terrazak egiteko metodoa. A. J. Dezallier d'Argenville, La théorie et la pratique du jardinage, 1709.



Patioen inguruan eraikitako landetxe zatikatuak. Borová u Policky (Eslovakia), Innvierthl (Austria) eta Frankonia (Alemania).



Landa partzelazioaren eta hiri-partzelazioaren arteko lotura. Nowdushan, Yazd, Iran.



Nahalal moshava, Israel. Richard Kauffmann, 1921.

### Bibliografia

- BENEVOLO, L. (1981): Diseño de la ciudad - 2. El arte y la ciudad antigua, Gustavo Gili, Bartzelona. [ISBN 84-252-1026-7]
- BLASER, W. (1999): Patios. 5.000 años de evolución desde la antigüedad hasta nuestros días, Gustavo Gili, Bartzelona [ISBN 84-252-1702-4]
- KARKAR, S. (2007): "Heritage uprooted", The Electronic Intifada. <http://electronicintifada.net/content/heritage-uprooted/7126> [kontsulta-data: 2011/6/19]
- SÁEZ CARRASCOSA, M. T. (2006): "Desarrollo rural y sostenibilidad. Los retos del sector agrario", Congreso Nacional del Medioambiente CONAMA 8, Bartzelona. [http://www.conama8.org/modulodocumentos/documentos/MRs/MR4/MR4\\_doc\\_TeresaSaez.pdf](http://www.conama8.org/modulodocumentos/documentos/MRs/MR4/MR4_doc_TeresaSaez.pdf) [kontsulta-data: 2011/6/19]
- ZALDUA ETXABE, L. M. (2006): "Saroiak eta kortak: zenbait ezaugarri", Aranzadiana, 127, 209-210. or. [ISSN 1132-2292]

© Unai Fernandez de Betoño EHUko irakaslea eta arkitektoa da.

